

DIRULAGUNTZEN PROGRAMEN OINARRI ESPEZIFIKOAK:

**4. PROGRAMA: ESKOLARAKO ADINEAN DAUDEN UMEENDAKO KIROL-EGITURAK
SORTZEKO EDO FINKATZEKO DIRULAGUNTZA**

Dirulaguntzen programa honetarako diru-zenbatekoa: 10.000 €

Edukia

1.	HELBURUA	2
2.	LAGUNTZEN ZENBATEKOAK	2
3.	ENTITATE ONURADUNAK.....	2
4.	ESKABIDEA AURKEZTEA	2
5.	ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA	2
6.	AURKEZTUTAKO ESKABIDEAN HUTSAK ZUZENTZEA	2
7.	ESKABIDEAK ONARTZEA	3
8.	BALORAZIO IRIZPIDEAK	3
9.	DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA.....	3
10.	DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA	4
11.	DIRULAGUNTZEN ALDAKETA.....	5
12.	DATUEN BABESA	5
13.	DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA	6

1. HELBURUA

Eskolarako adinean dauden umeendako kirol-egiturak sortzeko eta finkatzeko dirulaguntzetarako programa.

2. LAGUNTZEN ZENBATEKOAK

Eskola-kiroleko egiturak sortzea	10.000 €
----------------------------------	----------

Informazio guztia Bilbao Kirolak udal entitatearen web-gunean dago eskura:

www.bilbaokirolak.eus

3. ENTITATE ONURADUNAK

- Pertsona juridikoak, Bilboko udalerrian umeendako kirol jarduerak antolatzen dituztenak.
- IGEak, Kirol klubak, ikastetxeak edo beste edozein entitate- edo elkarte-mota, betiere ikastetxe batekin lotura badauka.
- Kirol-entitateek, dirulaguntza hauek eskuratzeko aukera izango badute, IFZ bat eduki behar dute (Identifikazio Fiskaleko Zenbakia).

4. ESKABIDEA AURKEZTEA

Eskabideak telematikoki aurkeztuko dira, Bilbao Kirolaken webgunean eskuragarri egongo den aplikazioaren bidez.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Deialdia BAO-n (Bizkaiko Aldizkari Ofizialean) argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita eta 2024ko urriaren 21era arte, egun hori barne.

6. AURKEZTUTAKO ESKABIDEAN HUTSAK ZUZENTZEA

Baldin eta eskabidea:

- Ez badago ondo beteta.
- Agiriak falta badira.

Bilbao Kirolak udal entitateak abisua emango dio entitateari, eskabideko hutsak zuzen ditzan. Hamar (10) egun balioduneko epea izango du horretarako, abisua jaso eta hurrengo egunetik aurrera kontatuta.

Hala egin ezean, Bilbao Kirolak udal entitateak ezetsi egingo du eskabidea¹

¹ Hala dio 39/2015 Legearen 68.1 artikulua (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

7. ESKABIDEAK ONARTZEA

Eskabidea ezetsi egingo da, baldin eta: ez bada aurkezten jardueraren memoria puntuazio-irizpideetan adierazitako eskemari eta aldagaiei jarraituz. Ez badator bat Bilbao Kirolak udal entitatearen lerro estrategikoekin.

Entitate eskatzaileen betebeharra izango da:

- Eskola-kiroleko programa bat diseinatzea.
- Programaren koordinatzaile bat izendatzea, dena delako ikastetxearekin edo elkartearekin kontratua daukana.
- Elkarteen, klubaren eta ikastetxearen artean behar diren lankidetzak-hitzarmenak egitea jarduerak antolatzeko.
- Begirale guztiek eduki behar dute legezko kontratu bat.
- Bilbao Kirolak udal entitateak antolatzen dituen eskola-kiroleko bileretan, mahaletan eta jardueretan parte hartu behar du.

8. BALORAZIO IRIZPIDEAK

- Egituran titulazio hauek dauzkaten begiraleak edukitzeagatik:

SEXUA	GOI-MAILAKO TITULAZIOA	Gorputz eta kirol ekintzen animazioko teknikaria	BEGIRALEAREN IKASTARO OFIZIALA
GIZONAK	8	5	5
EMAKUMEAK	8	5	5

- Bizkaiko Foru Aldundiaren dekretuan jasotzen diren eskola-kiroleko ibilbideetako edozeinetan izena emandako umeen kopuruagatik.

	Mutikoak	Neskatoak
Eskola-kirolean izandako izen emateen kopurua	1 puntu	1,5 puntu

9. DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Formula:	Puntuaren balioa= Guztirako zenbatekoa / Guztirako puntuak
	Zenbatekoa= lortutako puntuak x puntuaren balioa

- Dirulaguntza ezingo da izan, inolaz ere, eskatutako zenbatekoa baino handiagoa.

- Dirulaguntza ezingo da izan, inolaz ere, 1.500 € baino handiagoa.²

10. DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA

a) Jardueraren aurrekontuaren % 100 justifikatu beharko da¹⁰³

b) Entitateak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

- Entitatearen identifikazioa.
- Gauzatutako jardueren memoria.
- Jardueraren argazkiak, formatu elektronikoan.
- Diru-sarreraren eta gastuen balantzea.
- Ordainketa egin dela egiaztatzen duten agiriak:
 - Programaren epearen barruan.
 - Gastuaren guztizkoaren arabera.
 - Inprimaki ofiziala beteta (ORDAINAGIRIEN ZERRENDATA-LABURPENA- 4. ERANSKINA).
 - Aurkeztutako fakturen ordainagiriak.

c) Aurkezteko epea:

2 hilabete, honela kontatuta:

- Jarduera amaitzen den egunetik (Baldin eta amaituta EZ badago dirulaguntza ordaintzen denean).
- Dirulaguntza ordaintzen den egunetik (Baldin eta amaituta badago dirulaguntza ordaintzen denean).

d) Agiriko hutsak egiaztatzea eta zuzentzea:

Bilbao Kirolak udal entitateak aztertu egingo ditu aurkeztutako agiriak, ea zuzen dauden eta guztiak dauden egiaztatzeko. Hala ez bada, idazki bat bidaliko dio entitateari, honako hauekin:

- Eskatuko dio zuzentzeko hutsa eta/edo aurkezteko falta diren agiriak.
- Adieraziko dio ezen, hala egin ezean, ezetsi egingo duela eskabidea.

² Gehienez ere eman daitekeen zenbatekoa kontzeptu batengatik, 2022an.

³ 38/2003 Legea eta Bilboko Udalaren eta haren zuzenbide publikoko organismo eta erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarrien Ordenantza orokor arautzailea (BAOn argitaratua, 138. zenbakia.2016-07-20).

Entitateak **10 egun natural** edukiko ditu, abisua jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita⁴, hutsa zuzentzeko eta/edo agiriak aurkezteko.

e) Entitatearen obligazioak:

Aldaketaren bat eginez gero, jakinarazi egin beharko dio Bilbao Kirolak udal entitateari, aurretiaz.

f) Penalizazioa:

Entitateak itzuli egin beharko ditu jasotako diru-zenbatekoak eta berandutze-interesak⁵, baldin eta:

- Ez baditu justifikatzen.
- Justifikazioa ez bada behar bestekoa.
- Dirulaguntza zein jardueratarako eskatu zuen, ez badu hura gauzatzen.

11. DIRULAGUNTZEN ALDAKETA

Baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartu zen parametroetakoren bat aldatzen bada, dirulaguntza ere aldatu ahal izango da, betiere zertarako eskatu zen eta hartarako erabili bada.

12. DATUEN BABESA

- Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako datuak: BILBAO KIROLAK – Udalaren Kirol Erakundea, tokiko organismo autonomoa. Nafarroa 5, 4. solairua. 48001 Bilbo
- Datuen babeserako ordezkariarekin harremanetan jartzeko datuak: datos@bilbao.eus
- Tratamenduaren helburua: Pertsonentzako edo entitateentzako laguntza publikoak eta dirulaguntzak kudeatzea, kirola sustatzearekin zerikusia dutenak.
- Datuak gordetzeko epea: Datuak gordeko dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran.

⁴ 38/2003 Legea eta Bilboko Udalaren eta haren zuzenbide publikoko organismo eta erakundeek deialdi bidez dirulaguntzak emateko oinarrien Ordenantza orokor arautzailea (BAOn argitaratua, 138. zenbakia. 2016-07-20).

⁵ Dirulaguntzen Lege Orokorreko 37. artikulua 1. atalean ezarrita dagoenaren arabera.

- Tratamenduaren oinarri juridikoa: Tratamendua beharrezkoa izatea, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere botere publikoak baliatuz bete beharreko misio bat betetzeko.
- Norentzat den tratamendua: Kontuen Auzitegia, aldizkari ofizialetan argitaratzea eta Dirulaguntzak eta Laguntza Publikoak Publizitatearen Sistema Nazionalean argitaratzea.
- Eskubideaz baliatzea: Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuak tratatzeari mugak jartzeko edo aurka egiteko ere. Horretarako, idazki bat bidali beharko du Nafarroa kalea 5, 4. solairua 48001 Bilbao helbidera. Era berean, eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari (Datuak Babesteko Agentzia) erreklamazioa egiteko.

13. DIRULAGUNTZAREN PUBLIZITATEA

- Publizitatea jartzeko guneak dauzkaten jardueretan, Bilbao Kirolak udal entitateak gune bat edukiko du, emandako dirulaguntzaren ehunekoa adinakoa.
- Baldin eta Bilbao Kirolak udal entitatea bada "babesle nagusia", halaxe adierazi beharko da logoa eroango duten material guztietan.
- Dirulaguntza jaso duten pertsona juridikoek Bilbao Kirolak udal entitatearen logoa edo izena ipiniko dute ekitaldia dela-eta sortzen diren informaziorako eta publizitaterako material inprimatu, artxibo elektroniko edo ikus-entzunezko artxibo guztietan.
- Bilbao Kirolak udal entitateak emango du logotipoa:
- Aurreko ataletan ezarritakoa era batera edo bestera betetzen ez bada, gerta liteke dirulaguntzaren % 100 itzuli beharra.
- Euskara eta gaztelania erabili beharko dira:
 - Sortzen diren publizitate-testuetan.
 - Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusia duten jendaurreko esku-hartzeetan.